

INFORMAZIO OROKORRA

1.- Izena eta edukiak:

- Jarduera fisikoa, kirola eta osasunari buruzko nazioarteko kongresua.

1.1.- Hartzaileak:

- Jarduera fisiko eta kirol zientzietako, medikuntza eta elikadurako eta adinekoekin lotutako espezialitateetako ikasleak.
- Familia eta kirol medikuntzako profesionalak.
- Adinekoekin lotutako profesionalak.
- Elikadurako profesionalak.
- Kirol teknikari profesionalak.

1.2.- Alor tematikoak, kongresu egun bakoitzeko bat landuko da:

- Jarduera fisikoak eta kirolak osasunarekin duten loturaren oinarri zientifikoak.
- Jarduera fisikoaren bidez osasuna sustatzeko ereduak.
- Jarduera fisikoak gizartearen beharretara egokitzea.

1.3.- Lan-talde tematiko teorikoak, lehenengo kongresu eguneko arratsaldean egingo dira:

- Haur obesitatearen prebentzioa, eta jarduera fisikoarekin eta kirolarekin duen lotura.
- Pertsona ezinduak gizarteratzea jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez.
- Jarduera fisikoa pertsona zaharren bizi-kalitatea ontzeko bide.
- Herritarren ohiturak aldatzeko moduak: herritar eta erkidego aktiboagoak nola sortu.

1.4.- Lan-talde tematiko praktikoak, bigarren eguneko arratsaldean egingo dira:

- Jarduera fisikoa nola aholkatu.
- Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak.
- Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak ur ingurunean.
- Zaharrentzako parkeak: praktikak berariaz prestatutako instalazio batean.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



2.- Lekua:

- Tolosa (Gipuzkoa – Euskal Herria).

3.- Egunak:

- 2006ko urriak 19, 20 eta 21.

4.- Antolatzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia, Kirol Zuzendaritza Nagusia, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentua.
- Tolosako Udala.

5.- Babesleak:

- Kutxa, Caja Gipuzkoa San Sebastián.
- Pfizer S.A.
- Gipuzkoako Poliklinika.
- El Diario Vasco

6.- Laguntzaileak:

- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Osakidetza.
- MAS Commerce
- EKISE
- KAIT

7.- Laguntza teknikoa:

- Kirol Management S.L.

8.- Hizkuntzak:

8.1.- Hizkuntza ofizialak: euskara eta gaztelania

8.2.- Lan hizkuntzak:

- Osoko txostenak: euskara eta gaztelania (aldi bereko itzulpen zerbitzua egongo da euskaratik gaztelaniara).
- Lan-taldeak eta komunikazioak: gaztelania

Babesleak/
Patrocinan



Laguntzaileak/
Colaboran





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



9- Txostenak aurkeztuko diren egoitza:

- Leidor aretoa.
San Frantzisko pasalekua, 6
20400 Tolosa

10.- Lan-talde teorikoen egoitza:

1. eta 4. Tailerrak:

- Leidor aretoa.
San Francisco pasealekua, 6
20400 Tolosa

2. eta 3. Tailerrak:

- Tolosako Kultur Etxea.
Trianguloa plaza, 1
20400 Tolosa
Tel.: 943 670 383
Fax: 943 670 300
Email: kultura@tolosakoudala.net

11.- Lan-talde praktikoen egoitza:

- Usabalgo kirolgunea.
Usabal, 25 A
20400 Tolosa
Tel.: 943 536 400
Fax: 943 536 400
Email: usabalkiroldegia@hotmail.com

12.- Kongresuko Idazkaritzaren egoitza:

- Tolosako Leidor.
San Frantzisko pasalekua, 6
20400 Tolosa

Babesleak/
Patrocinan



Laguntzaileak/
Colaboran



13.- Kongresua hasi baino lehen Idazkaritzak izango duen egoitza:

- Kirolarte
Anoeta pasealekua 5
20014 Donostia
Tel.: 943 458 357
Faxa: 943 459 593
Email-a: kirolarte@gipuzkoa.net
Webgunea: www.kirolarte.net/congreso

14.- Izena emateko kuota:

14.1.- Kuota:

- Kongresurako izena emateko kuota 100 eurokoa da, BEZ barne.
- Afari ofizialeko menuaren zenbatekoa 30 euro da, BEZ barne.

Izena emateko kuotaren barne daude:

- Orriak eta boligrafoa dituen karpeta.
- Identifikazioa.
- Txostenak eta komunikazio laburpenak jasotzen dituen CDa.
- Usabalgo kirolgunean dohainik sartzeko txartela Kongresuak irauten duen bitartean.
- Goizeroko atsedenaldiriko kafea.

14.2.- Hobariak:

Izena emateko kuotan honako hauei eskaintzen zaie hobaria:

- Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako udaletako kirol teknikariak: % 50
- Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako aldundietako kirol teknikariak: % 50
- Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko kirol teknikariak: % 50
- Unibertsitate ikasleak: % 50
- Lan-taldeetarako komunikazioak hautatu zaizkien partaideak: % 50

OHARRA: Izena emateko kuotari soilik aplikatuko zaio hobaria, eta ez afari ofizialeko zenbatekoari. Dena delakoagatik, urriaren 10a baino geroaro egiten diren izen-emateek, onartzen badira, ez dute hobaririk izango.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



14.3.- Ordainagiria:

Kongresuaren antolakuntzak ordainagiriak emango dizkie izena emateko kuota eta afari ofizialaren zenbatekoa ordaindu duten kideei.

15.- Izena ematea:

15.1.- Kongresurako izena Idazkaritza Nagusian bertan, on line webgunean (www.kirolarte.net/congreso), posta elektronikoz (kirolarte@gipuzkoa.net), faxex fax (943 459 593) edo ohiko postaz (Kirolarte, Anoeta pasealekua 5, 20014 Donostia) eman daiteke.

15.2.- Izena emateko formularioak bi zati dauzka:

- Bata kongresurako izena emateko.
- Bestea tailer teoriko eta praktikoetarako izena emateko.
- Izena emateko formularioa eta adskripzio formularioa on line bete eta bidali ondoren, bakoitzak berari dagokion kuota ordaindu beharko du (ikus hobarien zerrenda), bai eta afari ofizialari dagokion zenbatekoa ere, joateko asmorik izanez gero, 3035 0164 68 1640009312 zenbakiko kontu korrontean, eta abonua-
- agiria 943 459 593 fax zenbakira bidali behar da. Kongresuaren antolakuntzak izena emateko hurrenkera zorrotz errespetatuko du izen-ematea baieztatzerakoan.
- EHUko ikasleek, gainera, 2006-2007 ikasturteko matrikularen ordainagiria edo matrikulatuta dagoela argi eta garbi dioen fakultateko idazkaritzaren ziurtagiria bidali beharko dute faxez.

- Izena emateko epea urriaren 10ean amaitzen da.

- Gehienez ere 200 lagun onartuko dira kongresuan

16.- Ziurtagiriak:

Programatutako jardueren % 90etan parte hartu duten lagunei bakarrik emango dizkie ziurtagiriak Kongresuaren Idazkaritzak. Esate baterako, eta egitarauan zehazten den ordutegia aintzat hartuta, % 100eko partaidetzatzat honako hau joko da: osoko bilkura guztietan izatea, hasierakoa eta amaierakoa barne, eta bi tailer teoriko eta praktiko batean parte hartzea.

16.1.- Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleentzako ziurtagiriak:

Babesleak/
Patrocinan



Laguntzaileak/
Colaboran





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kirolarte

TOLOSAKO  UDALA



16. puntuari jasotakoa betetzeaz gainera, unibertsitatearen hautaketa libreko kredituez baliatzeko ziurtagiria eskuratu nahi duten unibertsitariak, antolakuntzak prestatuko duen partaidetza orria izenpetu beharko dute eta beren izen-abizenak eta NAREN zenbakia idatzi beharko dituzte, bai saio edo tailer bakoitzera sartzean, bai irtetean.

16.2.- Osasun arloko langileentzako ziurtagiriak:

16. puntuari jasotakoa betetzeaz gainera, Profesio Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluaren kredituez baliatzeko ziurtagiria eskuratu nahi duten osasun arloko langileek, antolakuntzak prestatuko duen partaidetza orria izenpetu beharko dute eta beren izen-abizenak eta NAREN zenbakia idatzi beharko dituzte, bai saio edo tailer bakoitzera sartzean, bai irtetean.

17- Ostatua:

- Palacio de Aiete hotela ****
- Oria hotela *
- Zuloaga Txiki aterpea

OHARRA: Ostatua hartzeko hainbat eskaintza daude webgunean. Partaideek eurek lotu beharko dute beren ostatua; horretarako, eskaintzan ageri diren aukeretakoren bat hautatu eta " Tolosako kirol kongresua"-n parte hartuko dutela adierazi beharko da.

Babesleak/
Patrocinan



Laguntzaileak/
Colaboran

